



3. GELA PRAKTIKA: GASTROENTERITIS AKUTUA. DESHIDRATAZIOA

Gastroenteritis akutua (GEA) etiologia infekziosoa izan ohi duen mukosa gastriko eta intestinalaren hantura bezala definitu daiteke. Klinikoki gorozki likido kopurutsuekin joaten da eta askotan gorakoak, sukarra edota sabeleko mina ere egon ohi dira.

Mundu-mailan morbiditate eta mortalitate arrazoi garrantzitsua da, urtero 1.5-2.5 milioi heriotz sortaraziz 5 urte baino gutxiagoko umeetan. Oso zifra altuak izan arren, azken urteotan nabarmen jaitsi dira aho-bidezko errehidratazio soluzioen agerpenarekin.

Gaiaren edukiera:

1. Orokortasunak: Kontzeptuak, epidemiologia, etiologia, patogenia... adinaren arabera
2. Klinika: Deshidratazio graduaren estimazioa
3. Diagnostikoa
 - a. GEAREN istorio klinikoan aipatu beharreko datuak
 - b. Miaketa fisikoa
 - c. Froga osagarriak: beharrezkoak eta indikaziorik ez dutenak
4. Tratamendua
 - Aho-bidezko soluzio motak
 - DH arinaren tratamendua
 - DH ertainaren tratamendua
 - DH larriaren tratamendua
 - ⇒ DH isonatremikoaren maneia
 - ⇒ DH hiponatremikoaren maneia
 - ⇒ DH hipernatremikoaren maneia
 - Beste tratamenduak
5. Prebentzioa

**PEDIATRIA SAILA
DEPARTAMENTO DE PEDIATRIA**



Literatura: Nelson essentials of Pediatrics 9th Edition:

- 7. Atala, 33. kapitulua (132.-136. or.)
- 16. Atala, 112. kapitulua (427.-430. or)